

- ...EZTA / EZ DA?
- BETI(ko) LEGEZ

Gasteizen, 2001eko otsailaren 6an.

Jesus Mari Makatzaga
Gramatika batzordeko idazkaria

Ibon Olaziregi, Eusko Jaurlaritza.

Olaziregi jauna, agur:

Zuregandik jaso ditugun bi galderen erantzuna ematera natorkizu lerro hauen bidez.

1. Lehenbizikoa honako hau zen: *Etorriko zara, ezta?* ala *Etorriko zara, ez da?* Nola idatzi behar litzatekeen aurretik esandako zerbaiten konfirmazioa eskatzeko erabili ohi dugun moldea.

Lehenbizikoz, esan behar dugu Euskaltzaindiak ez duela araurik eman honi buruz; beraz, *ezta* nahiz *ez da* idatz daitezkeela gaurkoz.

Nolanahi ere aukeratzen hasiz gero, Gramatika batzordekideak *ezta*-ren aldeko ginатеке ondorengo arrazoiak direla medio:

- Literatura tradizioan biak erabili izan diren arren, forma fosildua gehiagotan erabili izan da.
- Gaur egungo erabileran ere forma hori nagusitu dela iruditzen zaigu.

Hori bai, forma bi horiek baino zaharragoa den beste bat erabili nahi izatera (*ez da hala*), orduan *ezta* baino egokiagoa litzateke forma berezia, *ez da*. Gauza bera, formula horren balioak erabili nahi baldin baditugu ere: *ez al da hala*, *hala ez da*, eta abar.

2. Bestetik bizkaierazko *legez* postposizioaren erregimenaren gainean egiten diguzu bigarren galdera: ea *betiko legez* behar duen izan ala *beti legez*; *atzoko legez* ala *atzo legez*.

Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V (Menderakuntza-I)* liburuan esaten duguna nahikoa izan daiteke galderari erantzuna emateko. 358. orrialdean honako hau esaten da:

“(…) Denborazko aditzondo bat baldin badugu, berriz, *-KO* atzizkiaz horniturik agertuko zaigu:

- e. Nik lanian jardun det betiko moduan (Txirrita, *Bertsoak I*, 159).

Zenbait euskaldunek, beharbada analogiaz, *legez*-i ere aplikatzen diote arau hori: *nire legez*, *ni legez*-en ondoan, *atzoko legez*, *atzo legez*-en ondoan, etab. Baina jokabide honek berria ematen du, horrelakorik ez baita literaturan ageri, dirudienez.”

Alegia, *-ko*-dunak ez ditugu hobesten berri samarrak direlako eta literatura tradizio idatzian erabili ere egin ez direlako. Gramatika batzordearen hautua, beraz, *atzo legez* eta *beti legez*-en aldekoa da.

Zure eskaerari erantzun egokia eman diogulakoan, hurrengo batera arte.